

## **HASI DIRA URUMEAKO ZUBIBIDEKO KARGA PROBAK, ZUBIA EUSKADIKO LUZEENA DA (kilometro 1)**

*Probetan 24 kamioik hatzen dute parte aldi berean, eta 10 egun iraungo dute (5 egun galtzadako)*

*Egitura erraldoia 22 metro garai diren 37 zutabetan eusten da, 55 metroko argia duten hogeitau bat bao ditu galtzada bakoitzean, eta galtzadak 14 metro zabal dira. Zubibide hau eraikitzeak aurrekontua 32 milioi euro da*

Donostiako bigarren saihasbidearen eraikuntza lanek urrats berri bat eman dute gaur Urumeako zubibidearen karga probekin. Saihasbidea 17 kilometro luze da eta Donostiako lehen saihasbidea nabarmen arinduko du. Zubia, berriz Euskadiko luzeena da (1 kilometro).

Urumeako bidezubia Erreterria eta bigarren saihasbidearen Urumeako lotunearen artean dago, eta autobide berri horren egitura ikusgarriena da. Bi zubi dira, 1.000 metro luze bakoitza, Urumeako ibarra gurutzatzen dutenak Astigarragan. Urumeako autobidearen gainetik, abiadura handiko trenaren trazatuaren gainetik eta GI-131 errepidearen gainetik doa.

Egitura erraldoia 22 metro garai diren 37 zutabetan eusten da, 55 metroko argia duten hogeitau bat bao ditu galtzada bakoitzean, eta zubiak 14 metro zabal dira. Zubibide hau eraikitzeak aurrekontua 32 milioi inguru da. Donostiako bigarren saihasbidearen kostu osoa 300 milioi da.

Gaur goizean hasi diren karga proba (2010eko martxoaren 2an, asteartea) hurrengo 10 egunetan luzatuko dira; izan ere, galtzada bakoitzeko 5 egun behar dira. Urumeako zubibidearen karga proba azken urratsa da egitura amaitutzat joa urretik. Proba horrek egituraren funtzionamendua neurtzen du. Desplazamenduen kontrola egiten du bao bakoitzeko erdiko sekzioko bi puntutan eta euskarrien gainean. Desplazamendu horiek karga hipotesi jakin batzuen ondorio dira. Horretarako 39 tonako kamioiak erabiltzen dira.

Eskuineko galtzadak 26 karga hipotesi ditu, eta 12-18 kamioi behar dira. Ezkerrekoak, bao bat eta lerro bat gehiago dituzenez, 27 hipotesi behar ditu eta gehienez 24 kamioi. Egunean 6 hipotesi egingo dira, bost egun, beraz, galtzada bakoitzerako.

## URUMEAKO BIDEZUBIA



**Urumeako bidezubiaren hartze panoramikoa, Euskadiko bidezubirik luzeena (kilometro 1)**

Bidezubi hau, Urumeako Ibarra (Astigarragan) zeharkatzen duen eta 1000 m-ko luzeera duten bi zubiz osatuta dago.

Eraikuntza lanak 2008ko hasieran hasi ziren

Eskuineko galtzada (Irun norabidean) 2009ko apirilean bukatu zen.

Ezkerreko galtzada (Zarautz norabidean) 2009ko urrian amaitu zen.

❖ Ezkerreko galtzada: 21 begiko bidezubi bat da; begi bakoitzak 55 metroko argia du.

❖ Eskuineko galtzada: 20 begiko bidezubi bat da; begi bakoitzak 55 metroko argia du.

- Bidezubi bakoitzaren zabalera 14 metrokoa da.
- 37 pilare daude, batez beste 22 metroko altuerakoak.
- Piloteen diametroa: 1,5 m            5.500,00 m
- Hormigoi armatua:            56.800,00 m<sup>3</sup>
- Altzairu pasiboa            6.850.000,00 kg
- Altzairu aktiboa            980.000,00 kg

Aurrekontua: 32 milioi euro